



Amara Berriko sanjoanetako iazko herri bazkaria. IKASBIDE

Auzotik auzoarentzat, eta auzotarrekin

Amara Berriko San Joan jaiak gaur abiatuko dira, jardueraz beteriko hiru egunekin. Dena dela, hilaren 23an, San Joan bezperan, borobilduko dituzte festak.

Inaxio Esnaola Aranzadi

Probestu plazan elkartzeko prest daude Amara Berriko auzotarrak. Gaurtik igandera bitarte egingo dituzte San Joan jaiak, eta auzoari begirako ohiko jarduerak antolatu dituzte hiru egunetarako. Noski, plazaren ateari beti zabalik egongo dira herritarrei harrera egin eta giro ederrean ospatzeko sanjoanak. Festak hilaren 23an borobilduko dituzte, San Joan bezperan.

«Auzoko eta etxeko giro hori mantentzea da gure ohiko helburua, eta zentzu horretan prestatu dugu egitaraua. Kanpotik etortzen direnei ere harrera polita egiten diegu. Jai irekiak dira, eta datozen guztiekin konpartitzen ditugu», azaldu du Javi Sampedro Ikasbide kultur elkarteko kideak. «Urteroko egitaraua errepikatuz dugu, hori delako auzotarrok estimatzen duguna», gaineratu du.

Haur, gazte eta helduentzako jardue-

rak dira Amara Berriko sanjoanetako pizgarriak. «Jaiak ondo abiatzeko, gazte olinpiadak egingo ditugu gaur. Auzoko gazteen arteko jokoak sustatu nahi izan ditugu. Kuadrillen arteko jokoak izango dira, giroa sortzeko Probestu plazan», azaldu du Sampedrok.

Fermin Muguruzaren kontzertua ikustera doazenak Amara Berriko jaietatik pasatu daitezke aurretik edo ondoren

Bi erraldoi berri

Egitarauak berritasun nabarmenik izango ez duen arren, Amara Berri bi erraldoi berri izango ditu. «Ez dute argitu zeintzuk izango diren, eta gaur bertan jakin ahal izango dugu zeintzuk diren. Sekretupean dituzte, eta oraindik ez dituzte erakutsi», dio Sampedrok. Gaurko pizgarri nagusia erraldioen erakustaldia izango den arren, bestelakorik ere izango da: «Txokolate jana eta txupinazoa ez dira faltako. Festen hasiera ofiziala ere izango da. Gauerako, Amara Berri inguruko rap abeslari batzuk izango ditugu, beste proposamen bat».

Nolanahi ere, biharko eguna izango da oparoena. 3x3 saskibaloia txapelketa, paella txapelketa, bazkari herrikoia, mus txapelketa, txotxongiloen emanaldia, haurrentzako tailerrak eta puzgarriak, eta disko festa programatu dituzte. «Fermin Muguruzaren Anoetako kontzertua oso gertu izango dugun arren, uste dut gure festekin bateragarria izango dela. Guretik pasatu ondoren joan ahal dira batzuk Anoetara, eta hango festa bukatzean bueltan etorri», adierazi du Sampedrok.

Igandeko biharamuna, berriz, ohikoa bezain lasaia izatea aurreikusi dute: «Dantza emanaldia, patata tortilla txapelketa, bazkari herrikoia eta 3x3 futbol txapelketa izango ditugu. Aldiz, Amara Kantuz taldeak girotuko du bazkari ostekoa, euskal musika herrikoiarekin». ●

OSTIRALA 13

16:30Erraldien erakustaldia Probestu plazan.
Gazte Olinpiar Jokoak.**17:00**

Erraldoiak, buruhandiak eta dultzaineroak.

18:30

Txokolate jana eta umeentzako jokoak.

19:00

Txupinazoa eta elkarteko pin entrega.

19:15

Txabol sotoaren irekiera.

19:30

Azar DJ-a, Menina eta mojitoak.

20:00-22:00

Afari herrikoia (ogitartekoak eta pintxoak).

21:30

Kontzertua: ELC 310, Gonza eta Gota.

22:45

Zezensuzkoa.

23:00

Kontzertua: Lean & Wavs.

LARUNBATA 14

09:00

Diana auzotik, trikitilariekin.

11:00Buruhandiak, erraldoiak eta trikitilariak
auzoan zehar.**11:30**3X3 saskibaloia txapelketa Amara Berri Ferre-
rias eskolan (16 urtetik gorakoak).**12:30**

Toka txapelketa.

13:00

Bertan egindako paella txapelketa.

14:00

Bazkari herrikoia.

16:30

Mus txapelketa.

17:00-18:00Ostomila txotxongiloak: *Osaba untxia eta
koioterren abenturak.***17:00-19:00**Amara Haurtxokoa eta Gaztelekua Ikasbide
jaietan.**18:30**

Deiadar txaranga auzoko kaleetan zehar.

20:30-21:30

Umeentzako disko festa (Oihan Vega).

20:00-22:00

Afari herrikoia (ogitartekoak eta pintxoak).

22:30

Zezensuzkoa.

22:40-01:00

Gazteentzako disko festa (Oihan Vega).

IGANDEA 15

09:30

Diana auzotik txistulariekin.

11:00Ikasbide ikastolako eta Ikasbide elkarteko
dantzarien emanaldia txistulariekin.**13:00**

Etxetik ekarritako patata tortila txapelketa.

14:00Bazkari herrikoia Amara Berriko Gazte
Asanbladaren eskutik.**16:00**Euskal musika herrikoia Amara Kantuzen
eskutik.
3x3 futbol txapelketa (16 urte azpitik).**18:00**

Sari banaketa.

ASTELEHENA 23

19:00

Sorgin jaitsiera Ilunki elkartetik.

22:00

San Joan Sua (Gaskako aparkalekuan).

22:45

Zezensuzkoa.



XANTI JATETXEA

Ondo pasa Amara Berriko jaietan!

Anoeta Pasealekua, 30, 20014 Donostia ✉ xantijatetxea@gmail.com ☎ 943-45 74 36



Urrats euskaltegia

Ondo pasa Amara Berriko jaietan!



www.urrats.eus 943-46 55 93 Karlos I.a, 10 - Donostia